

Pista eta basabideen gida: gakoak eta erronkak

Beharrezkoa da udal-ordenantzak harmonizatzea eta bideak hobetzeko eta birgaitzeko 15 urte bitarteko plan bat egitea



Baso-bideak eta pistak, horien erregulazioa eta erabilerak basojabeen buruhauste eta gatazka eta desadostasun nagusietako bat dira; izan ere, egurrak ateratzeko garaian, ezpataren eta hormaren artean egoten gara maiz. Alde batetik, errematatzailearen beharrak, lan-poltsak eta egutegiak baldintzatuta gaude; eta, bestetik, udalek eta herritarren interes orokorrak baldintzatuta, nahiz eta lan horietarako erabiltzen diren bide asko partikularrak diren.

Garrantzitsua da bide horiekiko ditugun eskubideak eta betebeharrak ezagutzea; norberaren erabilerarako zein itxi ditzakegun jakitea, edo beste jabe batzuei (zortasuna) noiz eta zer baldintzatan utzi behar diegun pasatzen mendian dituzten lurretara. Bestalde, erabilera publikoko bideak gero eta gehiago eta zorrotz arautzen ari dira Udalak. Araudi horiek nola eragiten diguten jakitea funtsezkoa da. **Azkenaldian implementatzen ari diren udal-ordenantzak geroz eta murriztaileagoak baitira.**

GEBEn uste dugu iritsi dela garaia alderdi hori jorratzeko, jabeak ahalduzko, lehen interesatuak baitira mendiko lanak ingurunea

errespetatuz eta bermeekin egin daitezten, eta, aldi berean, Administrazioari konpromiso bat eskatzeko, kontuan har gaitzan bide horiek arautzerakoan. Eta are gehiago, neurri gabe kaltetuko ez gaituzten neurriak bultza ditzan.

Ildo horretan, GEBEk Eudelekin, Euskadiko Udalen Elkartearekin, bilera bat egin behar du udalerrri guztietan aplikatu ahal izango den ordenantza komun bat adosten saiatzeko. Irizpideak eta neurriak bateratzea dugu helburu. Besteak beste, uste dugu ordenantzek mendiaren errealitatea islatu behar dutela. Ezin dira kanon neurrigabeak eskatu. Kasu askotan, banda marroiak erabat zigortutako pinudiak aurkitzen ditugu, baina udal-tasa edo fidantza bat ezartzerakoan ez da kontuan hartzen gaixorik dagoen pinudi horren benetako balioa; aitzitik, pinudi osasuntsu baten erreferentzia-balioa ematen zaio, eta horren arabera tasak aplikatzen dira.

2013 eta 2015 artean, aldaketa handia gertatu zen Gipuzkoan bereziki. Udal askok lurraldeko bide pribatu asko bereganatu zituzten, **erabilera publikoko bideen katalogoan** inbentariatuz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitalpen ofiziala eginez. Era horretan, bide horien kontrola hartu zuten eta kasu askotan baso-erabilerearako izugarri murriztaileak diren ordenantzak eta tasak aplikatuz. Gehienak hormigoizko bideak dira.

GEBEn uste dugu garaia dela Gipuzkoako bideak eta baso-pistak berritzeko plan bat sustatzeko eta artikulatzeko. Pisten eta baso-bideen sarea, publikoak eta pribatuak, ondare garrantzitsua da, eta sarritan ez gara horretaz jabetzen. Larrialdietarako eta suteen arretarako mendi-eremuetara sartzeari ere ahalbidetzen dutenak dira, eta garrantzitsua da erabilera horietarako egokituta egotea.

Dagoeneko eginda dauden pista asko ez dira egokiak gaur egun dauden makinietarako, ez baitute zabalera nahikorik. Izan ere, azkenaldian landaketak egin direnean, pista asko egokitu dira. Baina pistak denboraren poderioz ere higatzen dira, ez soilik ibilgailuengatik.

Jabearen kezka handienetako bat da **zurgile batzuek kalte larriak eragiten dituztela gure lurretan**, batez ere lan horiek eguraldi txarrarekin egiten direnean, eta zuloak sortzen dituztela. Horrela, jabeongan ondoeza eragiteaz gain, iritzi publikoaren eta toki-administrazioen aurrean kinka larrian jartzen gaituzte.

Ildo horretan, badira pistak zaintzeko eta egurra ateratzeko lanen **kalteak konpontzeko** alderdi horiek arautzen dituzten **kontratu-ereduak**; izan ere, sarritan, udalek ezartzen dituzten fidantzak jabeari dagozkio. Asko dira jakand GEBEko gure bulegoetan kontratu-eredu horiek eskatzen dizkiguten jabeak. Zalantzarik gabe, edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte harremanetan elkartearekin.



Landa-bide eta baso-pista horien erabilera arautzen duten ordenantzak gorabidean daude. Azpeitiko Udala hori arautzeko izapideak hasi dituen azkenetariko bat da eta gure elkarte bera, Enba eta Ehne sindikatuarekin batera, bertaratu egin da eta alegazioak aurkeztu ditu.

Pista horien egoera da alderdi garrantzitsuenetako bat. Jabeei kalteak exijitzeko orduan, beren lursailean mozketak egin behar dutenean, ez da kontuan hartzen pista horien egoera; izan ere, horietako gehienak duela 40 urte baino gehiago eraiki ziren, sarekadarik gabe, baita azpitik ustelduta ere, eta, ondorioz, errazago gerta daitezke kalteak.

Horregatik eskatzen dugu udalek inbentariatutako pistak eta erabilera publikokoak ikuskatzeko, alde batetik, eta 15 urterako bide-sarea hobetzeko plan bat prestatzeko ere. Pistak fidantza eta kanonak dakartzaten baso-erabileretarako prestatuta daudela bermatzeko modu bat da. Katua erbiagatik ez emateko modu

bat da. Hau da, **ziurtatu behar da pistak prest daudela emango diegun erabilerarako.**

Udalek beren bideak nola dauden ikuskatu behar dute lehenik eta behin, erabiltzaileari zer eska dakieken jakiteko; izan ere, kasu askotan, bere garaian hormigoia bota zutenean, ez baitzen gogortasun-frogarik egin, ezta mailukadarik jarri ere. Arazoak orain datoz, urteak pasatzen hasten direnean.



"Ondo egiteko lehen interesatuak gara"

"Jabeek beti ondo ikusiko dute ingurunea defendatzea eta gauzak ondo egitea, baina berme batzuekin. Errematatzaileei ez zaie gustatzen ur askorekin egurra ateratzea, baina ateratzen ez badute, ez dute kobratzen ", esan du Andoni Altunak, Debagoienako GEBEren eskualdeko ordezkariak. "Arazoa da tokian tokiko udalak arautzea azarotik martxora ez duzula egurra aterako. Hori ezin da izan, baina ados gaude kontrolatu behar dela. Zapuztuta sentitzen gara araudi gehienek guregan eragin ekonomikoa dutela ikusita", dio Altunak.

GEBEren iritziz, beharrezkoa dela denontzako balioko duen **ordenantza-eredu bat eratzea, bideen eta pisten erregulazioa harmonizatzea**, alegia. Hori bai, bakoitzak berera egokitutako

ordenantzekin, baina batipat kalitate eta bermezko bidesare bat edukita. Gure erronka sare nagusi hori ondo eraikita egotea eta udal guztientzat ereduzko ordenantza bat antolatzea izan behar du.

Beti garbi eta egoera onean dauden bideak onuragarriak dira guztiontzat.



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

1. Bide publikorako irteerarik ez duten mendi edo mendigune guztiek dute **pasabidea izateko eskubidea**. Behar bat izan behar du, ez apeta bat. Pasabideak zortasunpeko lurrari kalte gutxien egiten dion puntutik eta bide publikorako distantziarik txikiena dagoen tokitik izan behar du.
2. **Kalte-ordaina eman behar zaio zortasunpeko lurraren jabeari**. Pasabidea edo zortasuna iraunkorra bada, lurraren balioa gehi kalteak ordainduko dira. Unean unekoa bada, kalteak bakarrik.
3. **Zortasun-bideen zabalera** egungo behar sozial eta ekonomikora egokitu behar da.
4. Zalantza ohikoenetako bat da pista edo bide pribatu batean **pasabidea mugatu ote dezakegun**. Erantzuna baiezkoa da.

Gipuzkoan pista pribatu asko daude; normalean jabeek ez ditugu ixten, baita mendiak ere, eta edonor sar daiteke. Baina nahi badugu, egin dezakegu. Jabeak pasabidea itxi egin dezake.

5. Gure **Udalean erabilera publikoko bideen inbentarioak eska ditzakegu**, horietako zeintzuk dauden ordenantzen menpe jakiteko, kontuan hartuta 2015ean udalerrri askok inbentarioa egin zutela eta kilometro asko bereganatu zituztela.

6. Udal horiek ez dituzte bide horiek eskrituratuta jabetza-erregistroan. Kasu gehienetan, mantentze-lana arlo publikotik lagundu dela gertatu da. Horrek ez dio jabetza ematen, baina kasu askotan bai jabearekin adostutako zortasuna.

7. **Jabeen elkarteak** formula ona dira baso-pista pribatuetan hobekuntzak egiteko. Jabeen erabilera-baldintzak arautzen dituzten estatutuen bidez funtzionatzen dute. Pasoko eztabaida ohikoenetako asko konpontzeko formuletakoa bat dira.

8.- **Udal-bide publikoak** udalen jabetzakoak dira, eta erabilera publikoari lotuta daude.

9. Badira, halaber, lurralde historikoei dagozkien bide publikoak, tradizioz auzokoak deitu izan direnak eta erabilera publikoari lotuta daudenak. Hau da, baimenduta dago bertatik askatasunez igarotzea, baina dagokion udalean inbentariatuta egon behar dute, jabari publikoko ondasun gisa edo ondare-ondasun gisa. Kudeaketa Udalari dagokio eta erabilera-baldintzak ezar ditzake.

10. Auzokoak edo publikoak ez diren bideak partikularrak dira, eta zortasun-harremanen mende egon daitezke edo ez. Kasurik onenean, eskriturek gure mendiaren aldeko bide-zorraren eskubidea jasotzen dute.

11. Erakundeak jabeen elkartze bat sortzeko biderik ez duenean, baina eraldaketa beharrezkoa denean, jabeen arteko akordioak interesgarriak dira.